

6. KANALAK

Gure produktua Interneten bidez eskura dezakete gure bezeroek, bai web orriaren bidez edo aplikazioaz. *Beraz*, gure produktuak bi kanalen nahasketa izango du, propioa eta elkartua: alde batetik, gure zerbitzua gure bitartekoez emango diegu bezeroei, hau da, gure aplikazioa, web orria edo zerbitzuen bidez. Bestalde, gure enpresa elkartuen laguntzarekin osatuko da proiektua, lana aukeratzeko orduan, baldin eta produktua banatzeko akordioa badago, publizitate gisa.

Proiektua banatzeaz gain, publizitatean inbertitu beharko dugu gure zerbitzua ezagutarazteko, bai sare sozialetan, bai gure enpresari lotutako web orrietan.

Azkenik, lana probatu nahi duzula erabaki ondoren, bezeroek gure bulegoetara etorri beharko dute dena adosteko, hau da, kontratua sinatzeko, enpresa subsidiarioa aurkezteko, eta abar.

Beraz, erabaki dugu interneten (webgunea eta aplikazioa) bitartez izango dela gure bezeroekin harremanak eukitzeko kanalik egokiena.